

GIZARTE KOHESIOA EUSKADIREN ETORKIZUNERAKO

SARRERA

Gaur egun aurkitzen garen testuinguru sozialak aldaketa erraldoia ezagutu du azken hilabeteotan. COVID 19aren inguruan sortu den osasun krisiak eta hari lotutako zerbitzuen kudeaketarako elementuek eta bakoitzaren birformulazioak, eguneratze prozesua behar dute gizartearen ematen diren errealitate berriei eta gizartearen beraren beharri-zanei erantzuna emateko. Aldatzeko behar hau ez da osasun krisiaren eraginez sortu, baina krisi honek gizartea “biluztu” du, benetan sostengatzen duten zutabearen agerian utzirik, bere indarguneak eta ahultasunak erakutsiz, eta orain arte pentsaezin egiten zitzaizkigun egoerei erantzun berriak emateko beharra planteatu digu. Pedro Arrupe jesuitak esan ohi zuen bezala, ezinezkoa da gaurko erronkei atzoko erantzunak ematea. Ezta biharko erronkei ere.

Krisiak agerian utzi du, esate baterako, esparru publikoak daukan garrantzia hiritargoaren beharrei erantzuna emateko, gizartearengandik berarengandik elkartasunezko ekimenak egitura-zeak daukan garrantzia, sistemen zereginak osatzeko, bereziki toki eta erkidego esparruan. Azken hamarkada hauetan indibidualtasunak, balore gisa, balioa irabazi duen arren, gaur egungoa moduko krisiei eman beharreko erantzunak kolektiboak izan dira. Agerian geratu da, beraz, etorkizunerako ongizate sistemak pentsatzeko orduan ezinbestekoa dela Sistema publikoak indartzea, aldi berean parte hartze sozial aktibo eta

ardurakidearen alde eginez. Kolektiboaren balioak, indibidualismoaren aurrean, eta elkartasunarenak, presenteago egon daitezke gizartearen zati batean, pandemia honen ondoren.

Ikuspegi honetatik, garrantzitsua da hitzaurre honetan begiradaren garrantzia nabarmentzea, bereziki etorkizuneko ongizate sistemak pentsatzeko orduan. Begirada hori, gure aburuz, humanismoa jatorri eta helburutzat izan behar duten baloreek elikatu beharko lukete. Lehiakortasuna, aldaketa teknologikoak eta abarrak moduko elementu beharrezko eta estrategikoak aintzat hartzeari utzi gabe, (itxialdiko egunak inork imajina zitzakeen teknologia eta gizarte sarerik gabe eta gure artean interkomunikatzeko aukerarik gabe?), uste dugu ezin dela garapenik eman ezta aplikaziorik garatu, lan horren jatorrian interakzioen eta zainketaren inguruko hausnarketa humanista egin ezean. Horiek guztiek beren sorreratik pertsona bere osotasunean hartu ezik.

Bigarrenez, begirada bat behar dugu, zeinaren bidez babes sistemei dagokien aldetik, bere erakundea aintzat hartuko duen pertsona erdigunean jarriko den, eta zeharkako ikuspegi baten bidez pertsonen bizimoduari eragiten dioten eta askotariko diskriminazioen xede bilaka dezaketen faktore anitzak kontuan hartuko baitiren. Pertsona erdigunean jartzeak sistemak eta esparruak birbideratzea esan nahi du, eta, horretarako, hasieratik, horien zeharkakotasuna izango duen plangintza eta orientazioa hartu behar da kontuan. Ezin da planteatu etorkizunera begira gaur egun dauden sistemetan oinarrituta abiaraziko den antolamendurik. Premia berriek eta horietatik eratortzen diren erronkek orain arte egin den modu estankoa ihes egingo duten antolaketa-modu berriak beharko dituzte: kolektiboen eta premia-eremuen arabera.

Hala, jarraian proposatzen den planteamenduak oinarri ditu proposamenaren bizkarrezurra osatzen duten elementu horiek: errealitate berriaz jabetzea eta erantzun berriak esparru publiko eta komunitariotik planteatzea, erakunde transbertsal berri baten bidez, balore humanistetan oinarrituta eta bizitza iraunarazteko ikuspegitik, pertsona eta bere inguruko baldintza guztiak erdi-erdian jarritz.

1. KOHESIO SOZIALA ETA BALOREAK

Europako Kontseiluaren arabera, "Gizarte-kohesioa gizarteak kide guztien ongizatea ziurtatzeko duen gaitasunean datza, eskura dauden baliabideetarako sarbide ekitatiboa, giza duintasunarekiko, aniztasunarekiko, autonomia pertsonal eta kolektiboarekiko errespetua, parte-hartze arduratsua eta desberdintasun sozial eta ekonomikoak ahalik eta gehien murriztea barne, polarizazioa saihesteko helburuarekin". Gizarte-kohesioa gizarte-ongizateko sistema on baten emaitza da, eta, batez ere, politika eta adierazle multzo zabal bat da, desberdintasunak murrizteari eta herritar guztiei enplegua, hezkuntza, osasun-zerbitzuak eta kultura-ondasunak eskuratzeko aukera bermatzeari buruzkoa; eta, aldi berean, pertsonen sortutako kapital sozialaren, gizartean duten partaidetzaren eta haien partaidetzaren eta espazio formaletan dituzten interakzioen emaitza ere bada. Gizarte bat kohesionatuta dagoela ulertuko da, baldin eta berdintasunezko gizarte izatea lortzen badu, gizarte-ongizatea hornitzeko eta hezkuntza- eta kultura-ondasunak eskuratzeko sistemetan maila handia badu eta gizarte osatzen duten pertsonen beren interakzioen bidez garatzeko aukera ematen badie, horrek sortzen duen kapital soziala funtsezkotzat hartuta.

Kohesioak ez du esan nahi gizartean ezberdintasunik ez dagoenik, baizik eta gizarteak elkarbizitarako gaitasuna duela anitza eta askotarikoa izan arren. Ondorioz, gizarte kohesionatu bat, pertsonen eskubideen inguruan eraikia, kide izatearen sentimendua duen eta kontzientzia soziala duen gizarte da, elkarbizitza errazten duena, eragile askotarikoen artean aurrera egiten ahalbidetzen duelako eta epe luzerako politikak egiteko aukera ematen duelako.

Gizarte kohesionatu bat eraikiko bada, behar-beharrezkoa da pertsona politiken helburu bihurtzea eta gizaki guztien ongizatea sustatzea, giza duintasuna eta bizitzaren iraunkortasuna gainerako gauza guztien gainetik daudela ulertuz. Kohesio soziala eraikitzen da, batez ere, baloreetatik abiatuta. Balore unibertsal handiak, besteak beste askatasuna, berdintasuna, justizia, norbakoaren eta taldearen erantzukizuna edo elkartasuna. Balore horiek beren edukitzailean oinarrituta izendatu eta erabili dira, baina beren edukitik aplikatzen badira, gizarte errespetuzko eta tolerantero

eramango gaituzte, jendarte ulerkor eta enpatikora; zainketen kultura bultzatzen duenera; ongizatearen unibertsaltasuna bilatzen duenera; hezkuntza eta ezagutza sustatzen dituen; artearekiko, kulturarekiko eta edertasunarekiko sentsibilitatea sustatzen duenera; pertsonen konpromiso eta parte-hartze soziala sustatzen dituen; eta etengabe hobetzen saiatzen dena. Bere ahultasuna eta interdependentzia onartzen dituen gizarte izango da, guztion ongia lehenesten duena, errukitsua izaten dakiena, gizarte-harremanak eta partekatzea balioesten dituen, eta komunitatea sortzeko gai dena.

Balore horiek dira gizarte kohesioaren bultzatzaileak. Balore horietan oinarritutako begirada batetik baino ezin izango baita pertsona guztien garapena bermatuko duen gizarte eraiki, guztioi dagozkigun aukerekin, eskubideekin eta derrigorrekin.

2. KOHESIO SOZIALARI ERAGITEN DIOTEN ALDAKETA HANDIEN ETA ERRONKEN TESTUINGURUA

Gizarte kohesioa lehenetsi beharreko gai gisa sortu ohi da gizateriak garai aldaketaren bat bizi duenean, elkarrekin egiten dugun bizimoduaren oinarriak auzitan jartzen eta narriatzen hasten direnean. Gaur egun, hainbat arrazoi nagusi daude gizateriaren historian aldaketa sakona bizitzen ari garela sinestazten digutenak eta, beraz, gizarte kohesioaren inguruko eztabaida guztiz egokia dela.

Maila anitzeko aldaketa handien lekuko izan gara, maila globalean eta dimentsio anitzetan, gure bizitzako ia dimentsio guztietan. Aldi berean, eraldaketak gertatzen ari dira ekonomietan, gizarteetan, komunikazioetan, harremanetan, mugikortasunean, kulturetan, sistema politikoetan, teknologietan, geopolitikan, zientzian, demografietan...

Aldaketa horiek guztiek eragina dute gure bizimoduan, ongizate-sisteman eta gizarte-antolaketan. Gaur egun ezin zaio gure gizarteari etorkizunaren ikuspuntutik begiratu munduan eta gure inguruan gertatzen ari diren joera eta aldaketa nagusiak kontuan hartu gabe. Besteak beste, ondorengo aldaketa hauek nabarmenduko ditugu, gizarte-kohesioan duten eraginagatik:

1. **Aldaketa demografikoa:** Bizi-itzaropena handitu izanak eta, horren ondorioz, adinekoen

- eta oso adinekoen kopurua handitu izanak, baby-boomaren belaunaldiak erretiroa hartzeak, familiako eraldaketek, bizimoduan eta bizikidetzan izandako aldaketek, bereziki bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak gora egiteak, zaintzaile potentzialaren beherakadak eta abar, mendebaldeko gizarteak inoiz jorratu gabeko erronka baten mende jartzen dituzte.
- 2. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna:** Emakumeen aurkako indarkeria, soldata-arrakala, emakumeen ordezkaritza eskasa botere- eta erabaki-esparruetan, gehiegizko karga zaintzaren esparruan, lana eta familia/bizitza soziala bateratzeko zailtasunak, ... Gizarteak zor bat du emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, herritarrek gero eta indar handiagoz konpontzea eskatzen duten erronka handietako bat da.
 - 3. Aniztasuna eta askotarikotasuna:** Gizarte gero eta anitzago baterantz goaz, zentzu guztietan. Atzerritar jatorriko gero eta jende gehiago izateak jartzen gaitu aurre aniztasuna eta balio partekatuak jatorri oso desberdineko pertsonengan kudeatzeko erronkaren aurrean, bai eta iritsi berri diren biztanleen beharrei erantzuteko erronkaren aurrean ere. Beharrezkoa da aniztasunaren pedagogia egitea eta politika publikoen definizioari eta erabilera-baldintzei lotutako xenofobiari aurre egitea. Gainera, gizarte benetan plural, askotariko eta inklusibo batek dibertsitate funtzionala duten pertsonengan jarri behar du arreta, gizartean integratzeko orduan oztopo handiak baitituzte. Integrazioak aniztasunaren benetako kudeaketaren helburua izan behar du
 - 4. Zainketen krisia:** gure gizartean, zaintza-lanak familiak egin ditu gehienbat, eta horrek esan nahi du eginkizun horiek batez ere emakumeek egin dituztela. Hala ere, gizartea aldatu egiten da: emakumeak lan-merkatuan masiboki sartu dira; gero eta gehiago dira bakarrik bizi nahi duten pertsonak, edozein adinarekin, baita adinekoak direnean ere; familia-egiturak gero eta anitzagoak dira, eta enpleguaren errealitateak eragiten du familia-unitate bateko pertsona guztiek lan egin behar izatea horri eusteko, eta, batzuetan, urrutiko lekuetan. Horri gehitu behar zaio pertsonen gure zainketekin lotu nahi duguna ere aldatzen ari dela.
 - 5. Eraldaketa teknologikoak:** gaur egun, teknologia gizartean sartu da, eta haren funtsezko zati bat da. Aurrerapen teknologikoak aurrerapen-eta berrikuntza-garai bat markatzen ari dira. Aldaketa sozial handiak gertatzen dira, bizimoduan, ohituretan aldaketa dakartenak. Horrek aukera handiak dakartza, baina baita arriskuak ere. Arau etiko berriak behar dira.
 - 6. Globalizazioa:** globalizazioa, ingurumen-aldaketak eta ekonomia- eta finantza-krisiak gizarte-eraldaketa handiak eragiten ari dira, eta, horien ondorioz, desberdintasunak areagotzen ari dira, muturreko pobrezia, bazterkeria eta oinarriko eskubideak ukatzen dira. Aldaketa horiek konponbide berritzaileak eskatzen dituzte, balio unibertsalak errespetatzen dituztenak, hala nola bakea, giza duintasuna, genero-berdintasuna, indarkeriarik eza eta diskriminaziorik eza. Eraldaketa sozialen eragile nagusiak gazteak dira, aldaketa horien ondorioak jasotzen dituztenak.
 - 7. Desberdintasunak areagotzea:** Desberdintasuna areagotzea –bai errenta-fluxuei dagokienez, bai hain hautemangarriak ez diren beste elementu batzuei dagokienez, hala nola ondusun higigarri eta higiezinei, harreman-sareei, denbora librearen eskuragarritasunari, hilkortasunari, eragin politikoari edo haurtzaroko bizi-aukerei dagokienez– da, zalantzarik gabe, gizarte-kohesioa gehien mehatxatzen duten arrazoietako bat.
 - 8. Enpleguaren prekarizazioa:** Lanaldi partzialeko enpleguen hedapenaren eta lan-baldintzen prekarizazioaren ondorioz, enpleguak orain arte izan duen zentraltasuna galtzen ari da. Kategoría sozial berriak sortu dira, hala nola prekarriatua, kategoría hori osatzen duten pertsonen diru-sarrera txikiak zehazten duena, beste aldagai batzuk alde batera utzita. Adimen artifizialaren hedapenak enpleguen izaerara ekarriko duen eraldaketa kontuan hartu beharreko beste elementu bat da.
 - 9. Balio-sistemaren aldaketa:** globalizazioak berak balio-aldaketa handia ekarri du. Kontsumoa balorazio-irizpide bihurtzen da, eta, beraz, gauzen erabilgarritasuna daukaten kontsumo-mailan oinarritzen da, pertsonen beharrak ase ala ez. Irabazia funtsezko balioa da, eta horrela berretsi egiten dira konpetentzia,



sofistikazio teknologikoa, etab. Balio horiekin identifikatzeak indibidualismoa areagotzen du, eta beste balio unibertsal batzuk baztertzeko, hala nola elkartasuna eta kolektibismoa, ezinbestekoak baitira gizarte-kohesio handiagorantz aurrera egiteko.

10. **Kontsumismoa eta gero eta indibidualismo handiagoa:** Indibidualismoa joera bat baino gehiago da gure gizartean, sakon hedatutako errealitatea da. Gizarte indibidualistek pertsona bihurtzen dute bere bizitzako ibilbidearen protagonista, eta ikuspegi horretatik ere aldatu egiten dira elkarrekintzaren, etxebizitzaren eta arriskuak eta erantzukizunak hartzearen logikak. Kontsumoaren inguruko ikuspegia ere aldatzen da, ongizate-gizartearen adierazle nagusi bihurtzen baita.
11. **Sistemaren iraunkortasunari buruzko eztabaida:** Gizarte-babeseko sistemetan inbertitutako diru publikoaren proportzioak gora egin du azken urteotan. Gizarte-premiekin ere egiten dute hori. Ezinbestekoa da behar horiei aurre egiteko moduari buruzko eztabaidari ekitea, baliabide publikoen eskuragarritasunarekin uztartuz. Inbertsioaren eta gastuaren kontzeptuak birdefinitu behar dira. Gizarte-babeseko sistemak inbertsio gisa ulertzea, alegia.
12. **Belaunaldien arteko harremanak:** aldaketa demografikoek, sozioekonomikoek, globalizazioarekin lotutakoek eta abarrek belaunaldien arteko elkarrekikotasun-harremanak tenkatzea eragiten dute, eta harreman horiek gure gizarteko hainbat arlotan dute eragina (zaintzak, pentsioak, gizarte-kohesioa). Hurrengo urteetan, ezinbestekoa da belaunaldien arteko itun berri bati ekitea, gure gizartearen bilakaera, belaunaldien arteko trukeak eta kideen ongizatea bermatzeko.

3. KOHESIO SOZIALA LORTZERA BEGIRA ERANTZUN BEHARKO DITUGUN ERRONKA HANDIAK

3. 1. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ERRONKA

Emakumeen eskubideen aldeko, berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistarik gabeko gizarte bat eraikitzeko mugimenduaren une berri baten aurrean gaude. Martxoaren 8ko herritarren

mobilizazioak, 'Ezta bat gutxiago ere' edo 'Me Too' bezalako nazioarteko mugimenduak, emakumeen aurkako indarkeriak gizartean eta komunikabideetan duen gero eta oihartzun handiagoa - Matxismoaren erreakzio amorratu eta guzti -, horren adibide dira. Feminismoaren laugarren olatuan sartu gara edo ez, une historiko hau kalifikatzera iritsi garen bezala. Zalantzarik gabe, feminismoaren inguruan egindako berdintasunak eta pedagogiak dakartzan onurei esker, lehenagoko denboretan aipatzea ere ia ezinezkoa zen eremuetara, agendetara eta diskurtsoetara iritsi gara, eta mundu osoan izan duen eragina areagotu egin da.

Emakumeek eta gizonen tradizioz gizartean bete duten eginkizunak eraldaketa handia bizi du gaur egun. Emakumeek lan-merkatuan gehiago parte hartzeak, hezkuntza-maila guztietan parte hartzeak, prestakuntzarako eta kulturarako sarbide handiagoa izateak eta, neurri txikiagoan, erabakiak hartzeko eremuek aldaketa sozial onuragarriak eragiten dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egiteko. Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak bere horretan jarraitzen du gure gizartean, eta hainbat modutan agertzen jarraitzen du. Lan-merkatuari, partaidetza soziopolitikoari, zaintzako erantzukizunei edo emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuek erakusten dute hierarkizazioa dagoela gizonen eta emakumeen arteko harremanetan eta gizarte-posizioan. Sexuaren arabera jokabidearen estereotipo eta eredu soziokulturaletan du jatorria hierarkizazio horrek; besteak beste, emakumei etxeko arloaren ardura esleitzen diete, eta gizoni eremu publikoarena, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial oso desberdinean oinarrituta.

Hala, gure gizartean emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala % 24koa da, feminizaturako lanek balioa galtzen dute, emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan jarraitzen du, emakumeek ordezkaritza txikia dute botere- eta erabaki-eremuetan, zaintza-lanetan - ikusezinak eta balio gutxiak izateaz gain - Nagusiki emakumeen gain daude -, pobreak eta gizarte-bazterketak eragin handiagoa dute emakumeengan, eta emakumeen gorputzen merkantilizazioa, kofikazioa eta hipersexualizazioa jasaten jarraitzen dugu, egiturazko arazo horren icebergaren puntetako batzuk aipatzearen.

Gainera, ezin dugu ahaztu emakume askok diskriminazio anizkoitza jasaten dutela; izan ere, sexuagatiko diskriminazioarekin batera, beste diskriminazio batzuk ere pairatzen dituzte, arraza, jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, desgaitasuna, ondarea, sexu-orientazioa eta beste antzeko faktoreen ondorioz. Horrek guztiak, kasu askotan, herritar gisa dituzten eskubideak erabat baliatzea eragozten die.

Egoera horren aurrean, benetako berdintasuna lortzeko, lehenik eta behin, beharrezkoa da berdintasunarekiko konpromiso politikoa hartzea. Konpromiso politiko horrek, operatiboa izateko, berdintasuna bermatuko duten neurriak behar ditu, hala nola berdintasunerako berariazko araudia sortzea, aurrekontu-baliabideak gehitzea eta politikak garatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko behar bezala gaitutako eta legitimatutako egiturak eta pertsonak gaitzea.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna bezalako egiturazko eta dimentsio anitzeko arazo bat zuzentzeko berdintasun-politikek eskaintzen dizkiguten tresnen artean, funtsezkoa da genero-zeharkakotasuna politika guztietan aplikatzea. Hala, erabaki estrategikoek kontuan hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta behar desberdinak, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta fase guztietan. Genero-ikuspegia aurrekontuetan, plan sektorialetan, araudian, kontratuetan eta diru-laguntzetan sartzea.

Halaber, gizarte- eta lege-berdintasuna lortzearekin zerikusia duen mailan lan egiteaz gain, hau da, gure gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko mekanismo egokiak izatearekin (aurrerapen juridikoak, eskubideen finkapena, beharrian desberdinetara egokitutako baliabideak), bigarren maila batean lan egin behar da, balio-aldaketan esparruan, alegia. Beharrezkoa da berdintasuna gure subjektibotasunean ezartzen den balio bat izatea lortzea, gizarte honek barneratzea berdintasuna ez dela emakumei ematen zaien kontzesio bat, eta bai haien dagokien eskubide bat, eta, gainera, berdintasuna beharrezkoa dela, ez bakarrik justizia sozialagatik, baizik eta gizarte osoari mesede egiten dion elementu gisa.

Ondorengoak dira lehenetsi beharreko jotzen ditugun jarduerak:

ZAINKETA, BIZITZA ETA LANA UZTARTZEA, ERANTZUNKIDETASUNA

Zainketa-lanak gure gizartearen iraupenerako funtsezko diren arren, ikusezin bihurturik eta baloraziorik gabe jarraitzen dute, eta gehienak emakumeen esku jarri dira. Zaintzarena arlo pribatuan konpondu beharreko gaia omen da, eta emakumeek konpondu beharrezkoa, antza, lehentasunezko helburu sozial eta politikoa izan beharko lukeenean, gizarte osoa erantzule eginez.

Emakumeak dira oraindik ere kudeatzaileak (zaintzaileen % 85, gutxi gorabehera) eta, aldi berean, kontziliazio-estrategietan inplikaturik dauden baliabide nagusiak ere badira. Adingabea edo adingabeak badituzte eta lanean ari badira, emakumeek aukera dute lanaldi-murrizketa eskatzeko eta baliatzeko, edo zainketen erantzukizuna beste emakume batzuei transferitzeko, belau-naldiz belaualdi, amonen bidez, edo nazioz gaindi, zaintzak beste emakume batzuei transferituz (gehienak etorkinak), oro har soldata prekarioaren truke. Emakumeek ere enplegua uzteko aukera dute, kasu askotan, mendeko pertsonak artatzeko. Egoera hori adingabeen eta adinekoen zaintzan gertatzen da.

Zainketa-lanak emakumeen inguruan kokatzen jarraitzeak eta ugalketa-egoerari bizkarra emanez antolatzen jarraitzen duen produkzio- eta lan-kultura batean bizitzeak, zalantzarik gabe, era guztietako ondorioak dakartzate emakumeen bizi-ibilbidean. Horren adibide dira lan-sustapenari uko egin behar izatea egitea, lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko arazoak, eta ondorio kaltegarriak haien autonomian, aisian eta osasunean.

SOLDATA-ARRAKALA, KRISTALEZKO SABAIK ETA TXIROTASUNAREN FEMINIZAZIOA

Soldata-arrakala (gaur egun, % 24koa da EAEn) gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasun-arazo baten adierazpena da, kasu honetan ordainsarien arloan egiten dena, eta lan-merkatuan eta haien bizitzan zehar emakumei eragiten dieten diskriminazioa eta desberdintasunak islatzen ditu. Hainbat kausatan du jatorria, eta, beraz, era guztietako neurriak aplikatu behar dira, esku hartzen duten faktoreei dimentsio anitzean heltzeko.

Sexuaren araberako okupazio-bereizketa da soldata-arrakalan eragin handiena duen faktoreetako



bat; bereizketa horren ondorioz, emakumeak eta gizonak genero-rolari lotutako lanbideetan aritzen dira, eta ikusten da soldata-arrakala pixkanaka handitzen ari dela okupazio batean zenbat eta emakume gehiago egon. Gainera, kontuan izan behar da, gizon askoren erantzunkidetasun faltaren ondorioz, emakumeek malgutasun handiagoko lanak onartu behar dituztela lanaren eta familiaren beharrak orekatzeko, eta horrek lan-bereizketa hori eragiten du. Ondorioz, lanaldi partzialeko lanetan emakumeen ordezkariak gehiegizkoa da mundu osoan. Zehazki, lanaldi partzialeko lanaren % 80 baino gehiago emakumeek egiten dute EAEn.

Soldata-arrakalaren ondorioetako batzuk honako hauek dira: emakumeentzako autonomia ekonomiko txikiagoa, pobrezia-tasa handiagoak eta eragin zuzena gizarte-segurantzako kotizazioetan eta, ondorioz, pentsioetan.

Lan-eremuan, soldata-arrakalaz gain, desberdintasun handiak gertatzen dira oraindik ere, hala nola kristalezko sabaiak, sexu-arrazoiengatik lan-jazarpena edo kalteak enpleguan eta, ondorioz, autonomia ekonomiko urriagoa, lana eta familia bateragarri egiteko erantzukizuna beren gain hartzeagatik.

Emakumeen autonomia ekonomikoa, ordainsarrietan, diru-sarreretan eta pentsioetan berdintasuna sustatzea eta emakumeen artean pobrezia borrokatzea lehenetsuneko helburuak izan behar dira berdintasuna lortu nahi duen gizartearentzat.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko gizartearen eraldatzeko. Duela 30 urte Emakumearen Nazioarteko IV. Konferentziak adostu zuenaren ildotik, emakumeen ahalduntzerik gabe, ez dago berdintasunik (Beijingo Adierazpena, 1995). Beharrezkoa da emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzea, erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea eta eragiteko gaitasuna eta herritartasun osoa eskuratzeko prozesuetan parte har dezaten. Maila indibidualean, emakumeak mendekotasunaz jabetzeko prozesua babestuz eta, maila kolektiboan, emakumeek beren bizitzako eremu guztietan jasaten duten mendekotasun sozialari eta diskriminazioari buruzko kontzientzia komuna har

dezaten bultzatuz. Ahalduntzea beharrezko prozesua da emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lortzeko, botere-eredu hori botere-harreman hierarkikoak haustetik eta emakumeak baztertzeko ez dituen botere-eredu berri bat berreraikitzen baino ez baita etorriko.

ARTATZEA ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA

Emakumeen aurkako indarkeria arazo estrukturala, dimentsio anitzekoa eta globala da, eta horren oinarrian berdintasun-falta dago. Garrantzitsua da haren ondorioak minimizatzen lan egitea, indarkeria-egoeran dauden emakumei erantzun integrala emanez, bai eta adingabeei eta haien mendeko senideei ere. Erantzun integralak koordinazio handia eskatzen du aipatutako erantzunean parte hartzen duten erakundeen artean. Arreta integral hori osatzen dute babes polizialak, aholkularitza juridikoak, laguntza psikologikoak, prestazio ekonomikoak, hezkuntza-erantzunak, laneratzeak, etxebizitza eskuratzekoak. Arreta horrek, gainera, ikuspegi interseksionala izan behar du, biktima guztiek arreta integrala, doakoa eta kalitatezkoa izan dezaten, beren egoera pertsonala, soziala eta administratiboa edozein dela ere, eta, bereziki, zaurgarritasun-egoera handiengan daudenak.

Biktima diren emakumei erantzun integrala emateaz gain, beharrezkoa da prebentzioan eragitea, berdintasunean aurrera eginez, berdintasun eza baita emakumeen aurkako indarkeriaren benetako sustraia. Gure gizartearen, gazteek hezkuntza berezia jasotzen jarraitzen dute. Nesken kasuan, edertasunarekin, ontasunarekin, diskrezioarekin, zaintzarekin eta mendekotasunarekin lotutako mezuak jasotzen dituzte, besteak beste; eta mutilen kasuan, orldarkotasuna, arrakasta, handinahia edo sentimenduak ukatzea. Desberdintasunean hazten ari dira, eta hori da emakumeen aurkako indarkeria sortzeko bide zuzena. Horri gehitzen badiogu haurren sexu-heziketa bortxaketaren kultura justifikatzen duten mezuek zeharkatzen duten pornografiaren esku dagoela gaur egun, premiazkoa da hezkidetzaren eta balioetan heztearen beharra. Mutilak pornografiarik matxista eta bortitzenean hezten ari gara, eta neskak, berriz, maitasun erromantikoa. Bi errealitateen arteko tala ikaragarria da. Eta indarkeriarako haztegi ezin hobea da. Gizonen sentsibilizazioa ere

beharrezko egiten da. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kontzientziazioa eta inplizitazioa sustatu beharko da, eta, ondorioz, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baten alde egin.

3. 2. ZAINKETEN ERRONKA

Zainketa-krisi bat bizi dugu, eta, beste faktore batzuen artean, egituretatik datorren tentsio batean oinarritzen da. Tentsio hori gertatzen da zaintzeko behar den denboraren eta bizi garen gizarte-ereduak ezartzen digun bizi-dinamikan denbora hori edukitzeko zailtasunaren artean. Zaintza, historikoki, familien esku egon da, hau da, emakumeen esku, eta batez ere esparru pribatuan garatu da. Hala ere, gure gizartean gertatu diren aldaketek egiturazko arazo hori gero eta gehiago estutu dute, eta gero eta zailagoa da zaintzaren premiei erantzutea. Lehen galdera, beraz, izan beharko litzateke sistema honek ezartzen digun bizimodua bateragarria ote den gizarte honen zaintzaren beharrei erantzutearekin. Galdera horri aurre egiten diogun bitartean, zaintzeko zailtasunei eragiten dieten faktoreei erreparatuko diegu.

Zainketei dedikaturiko denborak eragin duen tentsioarekin batera, zainketen krisia ulertzeko beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan, hala nola desoreka “demografikoa” -egungoa eta bereziki gerokoa- duela urte batzuk herrialde desberdinetako adituek iragarritakoa, zaintzak ematen eta jasotzen zituzten pertsonen artean. Bizi-itxaropenak gora egitea beste faktore batzuekin batera gertatzen da, hala nola familiek zaintzeko aukera gutxiago izatea aldagai sozial, demografiko eta kulturalen ondorioz, bereziki eraldatuak emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzearen ondorioz, bai eta familiaren behar sozioekonomikoen ondorioz ere; edo jaiotza-tasak behera egitea; 65 urtetik gorakoaren artean pertsona bakarreko familien kopuruak gora egitea; gizarte-aldaketak, hala nola globalizazioa, iraultza teknologikoa, lan-prekarietatea, enpresen deslokalizazioa, etab.; ongizate-estatua politikoki auzitan jartzea eta etorkizunean bere horretan jarraitzea, bai esplizituki (bideraezintasuna), bai inplizituki, Estatuak zaintza alorrean dituen erantzukizunak transferituz (ongizate-estatuei lotutako gizarte-politikak lortzea) gero eta urriagoa den eta zaintzeko

aukera gutxiago dituen familia batera (kopuruz); zaintzaile potentziala murriztea (goi-mailako klase dirudunentzat izan ezik), gero eta desoreka handiagoarekin oso adineko pertsonen, 80 urte eta gehiagokoak, eta haien zaintzaile izan daitezkeen 45 eta 64 urte bitartekoaren artean, (2016an, 45-64 urteko 100 pertsonako 22 laurogeitik gorakoak izatetik, 2030ean 45-64 urteko 100 pertsonako 25 izatera igaroko gara; 2050ean, 63 izango dira, 45-64 urteko 100 pertsonako).

Zahartzaroari eta mendekotasunari buruzko ikuspegi zehatz bati egin behar diogu aurre –sektore ez oso erakargarri eta denboraren poderioz gero eta handiago egiten den gastutzat jotzen da, BPGa sortzeko gai ez dena eta balio erantsi gutxiak –, eta horrek zaildu egiten du asmo handiko politikak egitea, bai eta politika berritzaileak planteatzeko aukera ere, beharrei aurre egitea eragotziz. “Zainketak”, gainera, “ezkutatu” beharreko zerbait dira, eta badirudi ezin dela ezer egin, ezin baita sendatu, non teknologiak ez duen distirarik, non giza duintasuna galtzen den, non lana egiten den eta, ondorioz, sektoreko langileek merezi duten begirunea jasotzen ez duten.

Horri gehitzen zaio gaur egun ematen den eragozpena arazo konplexuei aurre egiteko orduan (eta zaintza ere hala da, aurreko puntuetan adierazi bezala), horien aurrean ikuspegi zeharkakoago eta lotuago bat behar baita, baita gobernantza desberdin bat ere, oraindik falta dena.

Zaintza afektiboaren konpromisoaren gainean eraikitako ereduak, batez ere emakumeen aldetik, eta zerbitzu publikoen sarea jada ez dira nahikoak etorkizuneko beharrian edo egoerei erantzuteko, eta horietako asko gaur egun ematen dira jada.

Arestian emandako arrazoi horiengatik guztiengatik, gizarte modernoek ekidin ezin duten erronka da hau. Sektorean esku hartzea begira, beharrezkoa da galdetzea, lehenengo eta behin, gure gizartean nork zainduko duen, nola, non eta zenbat denboraz.

NORK ZAINDUKO DU ETA NOLA?

Zainketak funtsezko ardatz dira gizateriaren iraupenerako. Hala ere, zaintza-lanak, ordainduak izan ala ez, ikusezinak dira analisi makroekonomiko guztietan, eta oso modu prekarioan eta gehiengo handi batez, emakumeen esku geratu ohi dira.



Denbora luzez, gure gizartean zaintza-lanak familiaren eta eremu publikoaren arteko logika dualean ulertu izan dira. Ulertzen zen (oraindik ere ulertzen da) zaintza-lanen inguruko erantzukizun nagusia familiari dagokiola (eta familiaren barruan, emakumeei), eta familiak ezin duenean, beste eragile nagusiek, eragile publikoek, esku hartu behar dutela. Gure dinamika sozialean ematen den logika horrek leku gutxi utzi die gainerako esparruei, merkatuari eta komunitateari, zaintza-harremanei lotutako logiketan esku hartzeko.

Zaintza izango da gizarte honek datozen urteetan izango duen erronka handienetako bat. Eta beharrezkoa izango da zaintzaren ideia indartzea, ez familia-ingurunearen erantzukizun gisa soilik, baizik eta baita gizarte osoak partekatutako erantzukizun gisa ere, eta, beraz, beharrei erantzungo dien eta zaintzak helburu joko dituen zaintza-sistema publiko bat beharko da.

Illo horretan, familia-ingurunekeo zainzaileentzako laguntza sustatzen ari da egunotan, baina senitartekoentzako laguntza (funtsean, emakume zainzaileena), zaintza-lanak beren gain hartzen jarraitzeko laguntza-premian oinarritua, amaitzen ari da.

Zaintzaileen belaunaldi berriak ditugu, eta begirada desberdinak dituzte zainzailearen harremanei eta eginkizunari buruz. Beren osotasun pertsonala lortu nahi dute, laguntza-ereduetan eta zainketen egituraketa eta antolaketan aldatzeko eskatuz. Alde batetik, zainzaile askok ez diote zainzaile izateari utzi nahi, baina beste modu batera izan nahi dute; eta, aldi berean, zaintza hori jasotzen duten pertsonak ere ez dute modu berean zainduak izan nahi; aitzitik, ziurrenik nahiago dute zaintza informala (afektibitatean zentratzen dena) zaintza profesionalizatuekin konbinatu.

Oraindik ere beharrezkoa al da zaintzaren ikuspegi instrumentala ematea? Zalantzarik gabe. Laguntza ekonomikoak beharrezkoak al dira? Seguru asko bai. Baina diskurtso "tradizionalak" biltzen duena jada ez da nahikoa.

Bestela esanda, zainzaileek aurrerapausoak aldarrikatu eta eskatzen dituzte, gizartean aldatzeko egitea eskatzen digute, eta, harrigarria izan daitekeen arren, berrikuntza sozialerako aukera ere eskaintzen digute, errezelarik gabe aprobeztatu beharko genukeena. Zainzaileek erabateko

bizitza pertsonala zainketekin uztartu nahi dute, bizitza pertsonala eta zaintzak uztartu, bizitza profesionala eta zainzailearena harmonizatu, lana gizartean aintzatetsi, lan-eskubideak balioetsi, eta abar.

Zaintza jasotzen duten pertsonak, berriz, beren nahiak eta bizi-proiektuak kontuan hartzen dituzten zainketak nahi dituzte. Eta, zainketen antolaketan familiak oso zutabe garrantzitsua izaten jarraitzen badu ere, gero eta pertsona gehiagok jotzen dute zainketa profesioaletara, batez ere zaintza informalekin batera.

Benetako erronka, beraz, bi nahiak uztartzea da, bai eta zerbitzu publikoak lortzea ere, zainduak eta zainzaileek nahi dituzten zainketak lortzeko.

Zaintza ez da soilik familia-ingurunearen erantzukizun gisa ulertu behar, baizik eta gizarte osoak partekatutako erantzukizun gisa, eta, beraz, beharrei erantzungo dien eta zaintzak erdigunean kokatuko dituen zaintza-sistema publiko bat behar du.

Beharrezkoa da sakonki birplanteatzea zaintza-eredua, egile askok planteatutako desfamiliarizazioa eta horren aurrean planteatu beharreko alternatiba.

ZENBAT DENBORAZ?

Elkarren mendeko izakiak gara bizitza osoan zehar, baina badira bizitzako une eta egoera batzuk mendekoago bihurtzen gaituztenak: haurtzarora, zahartzarora, aniztasun funtzionala. Zalantzarik ez dago zainketek, unean unekoak edo denboran iraunkoragoak izan, funtsezko espazioa hartzen dutela gure eguneroko bizitzan, eta gero eta gehiago luzatzen dela zaintza-eskariaren iraupena.

Zainketen erronka planteatzen denean, beraz, beharrezkoa da iraupen luzeko zainketak egitea, hau da, denbora luzez laguntza behar duten pertsonak zaintzea (batez ere, eguneroko laguntza behar duten pertsonak). Denboran zehar iraunarazten diren zaintza horiek modu desberdinean landu behar dira, horrek dakarren kostu pertsonal eta familiarragatik. Hamar edo hogeita urte zaintzen, emakume askoren bizitzaren laurdena, alegia. Ez da ahaztu behar.

Pertsonen baloreetan oinarritutako arreta integralaz hitz egiten da, pertsona gisa osatzen gaituzten alderdi guztiak kontuan hartuta. Eta iraupen luzeko zainketetan bihurtzen da are

beharrezkoagoa integraltasunaren kontzeptu hori. ELGEk adierazitakoaren haritik, iraupen luzeko zainketak zeharkako politika bihurtu dira, eta laguntza-premiak dituzten pertsonentzako zerbitzu asko bateratu behar dira. Hala ere, iraupen luzeko zainketen prestazioaren ezaugarria, askotan, erantzukizunak zatitzea izan ohi da.

Desgaitasun-, mendekotasun- edo ahultasun-egoeran dauden pertsonen laguntza jarraitua hainbat eremutan behar dutenean, arreta-sistemak eta -dispositiboak egokitu eta antolatu behar dira, laguntza horiek batera eta modu koordinatuan jaso daitezzen. Iraupen luzeko zainketek integrazio bat eskatzen dute (soziala, pertsonala, sanitarioa), baita egiturak integratuta ez badaude ere, eta pertsona bakoitzak bere gain har ditzakeen roletan (pazientea, erabiltzailea, egoiliarra, etab.) behar duen arretaren, zerbitzuen eta zaintzaren plangintza bat, hainbat egitura eta laguntza-mailen bidez.

Luzerako perspektiba bat izan behar da, pertsonak ibilbidearen fase desberdinetan artatzen dituen, pertsonak bizitzan zehar asistentzia-continuum bat izan behar du, eta pertsona hori egon daitekeen testuinguru desberdinetara egokitzeko behar besteko malgutasuna izan behar du: bere etxean, egoitza batean, hiri batean edo landa-ingurune batean. Zaintza horrek izan behar du ikuspegi globala eta diakronikoa, denboran aldakorrek diren beharrak hautematean eta ebaluatzean oinarritua, eta baliabideak etengabe ebaluatzea eta egokitzea eskatzen duena. Zaintza-lan hori erraztuko duen erakunde bat izan behar du, eta egiturak eta profesionalak aldatu behar ditu. Sendatzeari eta zaintzeari ez ezik, prebenitzeari eta birgaitzeari ere ekin behar dio, eta, azkenean, gaixotasunak arintzen laguntzeari. Hori guztia arreta soziosanitarioaren antolamendu benetan integral batetik abiatuta, pertsona ahulenen bizi-proiektua garatzea ahalbidetuko duena.

Pertsona izan behar da artatze prozesu osoaren bultzagile eta helburua, erabakiak hartzeko eta bere bizitzaren kontrolari eusteko autonomia zaindus. Pertsonen zainketaz ari garenean, kalitatea neurten da teknikatik harago doazen bizitza kalitatearen eta gaitasunen arabera. Eta, behin eta berriro, kalitatea nahastu da prozesuen aplikazio hutsarekin, eta zainketen profesionalizazioa nahastu da gaitasun tekniko batzuk ematearekin. Zainketen

eredua, aurretik esandakoari dagokionez, pertsonaren beharretara bideratu behar da, malgutasun irizpideak bete beharko ditu eta erantzunak eman beharko dizkie beharrezko zehatzei, hau da, eredu integral eta pertsonalizatua izan beharko da. Beste alde batetik, gizabanakoek konektatuta jarraitu nahi dute, erkidegoan integratuta. Erakundeen barruan zein haietatik kanpo emaniko zainketek eta babesak komunitate barruan emaniko zainketa eta babes bihurtu behar dira.

NON ZAINDUKO DUGU?

Gizarte honetako pertsona gehienek eskatzen dute zaintza-lan horiek, edozein fasetan daudela ere, ahal den neurrian, etxean bertan egitea. Eta, ezin bada, beren etxea bezalako tokiren batean egotea. Baina oraindik bide luzea dago egiteko arlo honetan. Eta erronka argi bat dugu: zerbitzuak egokitzea, pertsona ahalik eta denbora gehien egon dadin bere etxean.

Baina ez da hori erronka bakarra. Pertsonok gure etxean bizi nahi dugu, edo "etxean bezala"; beraz, beste erronka handi bat, batez ere iraupen luzeko zainketei dagokienez, nahi ditugun egoitza-zentrotan ere dago.

Urteetan zehar, egoitza-plazak gehitzera bideratu dira politika publikoak. Egia da defizit bat zegoela. Baina okerra da pentsatzea egoitza-ohene eskaria biztanleriaren zahartzearekin bakarrik eta zuzenean lotzen dela. Adinekoek nahiago dute etxean geratu. Erakundeek zerbitzuen hornitzailearen ikuspegiarantz jo beharko lukete, zainketen mende dauden pertsonen nahiago duten etxe-ingurunean modu independentean bizitzen jarrai dezaten, edo beren etxearen antzeko ingurune babestu batean bizi daitezzen. Agian ez dira beharrezkoak azpiegitura zentralizatu handiak, baizik eta txikiak eta deszentralizatuak izan daitezke, zerbitzu konektatuak eta konplexuak izango dituztenak.

COVID-19aren pandemiak indar handiagok plazaratu du bizitegi-ereduari buruzko eztabaida. Egoera horren aurrean, zentro batzuetan egoera benetan dramatikoak izanik, ezarri diren estrategiak kutsatzeak saihesteko osasun-irizpideetan oinarritu dira. Baina alde batera utzi dira pertsonen beste oinarritzko balio eta eskubide batzuk. Osasuna babestea da oinarritzko lehentasuna, eta hori bateragarria izan daiteke beste kontu batzuekin: Egoitzetan eta zentro sozio-sanitarioetan bizi diren



pertsonen beharrei buruzko begirada propio eta ezberdinarekin, bai eta pertsonak bizi diren zentro horien zereginarekin ere, horietako batzuk oso kalteberak baitira.

Ez du zentzurik laguntza emateko dauden egoitzak birmoldatzeak eta ospitale bihurtzeak. Egoitza-zentroak bizitokiak dira, pertsonak laguntzak behar dituztenean bizi ahal izateko baliabideak, alegia. Bizitzeko, letra larriz idatzita eta azpimarratuta. Ez bizirauteko soilik (fisiologikoki), ezta bizirik irauteko (garbi, janda eta jantzita egotea), bizitzea baizik. Eta inork ez du ospitale batean bizi nahi.

Hausnartu eta hobetu pentsatu behar da, gehien behar duten pertsonak zaintzen eta beren osasuna babesten lagunduko duten neurriak bilatuz, isolamendu eta itxialdi neurriek osasun eta ongizate aldetik egoerarik ahulenean dauden pertsonengan izan dezaketan albo-ondorioak minimizatuz.

3. 3. OSASUNAREN ERRONKA

Europako eskualdeen artean ematen diren ezberdintasunak aintzat harturik, osasun-sistemak antzeko erronkak dituzte adineko pertsonen eta beste kolektibo ahul batzuei eman beharreko arretari dagokionez. Hala, esandako erronken artean, honako hauek ditugu: eskariaren gorakada eta gaixotasunen prebalentzia, biztanleriaren zahartzearen ondorioz; arreta medikuaren eta tratamendu batzuen kostuen igoera; herritarrek gero eta gehiago espero dutela kalitatezko arreta, giza baliabideetan desorekak daude eskaintzari eta eskariari dagokienez; I+G-aren aldeko apustua. Osasun-sistemak erronka komunak dituzte, hala nola osasun sistemak zentralitate "ospitaleei" ematen diela. Osasun sistemak prozesu akutuen tratamendura bideratuta jarraitzen du eta prozesu kronikoen orekatu behar da, arretari garrantzi handiagoa emanez. Bada beste erronka handi bat ere: pertsonaren integritasuna ez galtzea, osasun-arreta integrala eskainiz, gaixotasunari ez ezik, gaixoak ere kontuan hartuz, baita beste baldintzatzaile batzuk ere, hala nola klima-aldaketak osasun-laguntzarako eta osasunerako dakarren mehatxua edo egoera sozioekonomikoarekin lotutako osasun-desberdintasunak.

Egoera horren aurrean, guztiz presazkoa da gure osasun sistemaren eta sistema sozio-sanitarioaren inguruko hausnarketa sakona egitea.

Osasuna esku-hartze estrategikoko gune bat da, krisiek uzten dituzten ondorio sozialak murrizteko ez ezik, ingurune osasungarriagoetarako sarbidea sustatzeko eta etxe behartsuenen osasunaren narriadura prebenitzeko ere bai. Lehenik eta behin, beharrezkoa da bizi-zikloan zehar inbertitzea, osasunaren narriadura-egoerei aurrea hartzeko estrategia gisa. Bigarrenik, gaixotasunen mugatzaile sozialak ikertu behar dira, osasun orokorra sustatzeko estrategia gisa. Gaixotasunak eta osasunaren narriadura-prozesuak oso baldintzatuta daude haien inguruko gizarte-errealitatearekin. Hirugarren estrategia osasun-bazterketako egoeretako mugatzaile sozialei aurre egitea da, ingurune osasungarriak sustatzeko estrategia gisa. Azkenik, pertsona ardatz duen arreta-eredua sustatu behar da, egoera ahulenean dauden kolektiboan eta gutxiengo etnikoen sarbide-oztopoak gainditzeko estrategia gisa. Pertsonarengan zentratutako arretak indarra hartu du bai espazio akademikoetan bai profesionaletan. Hartara, ikuspegi hori aplikatzeko, gaixoaren beraren bizitzara eta momentu sozial eta familiarera egokitu behar dira esku hartzeko ikuspegi eta eskura dauden baliabideak.

3. 4. DEMOGRAFIAREN ERRONKA

Demografiak planteatuko digun errealitatea izango da gure gizarteak datozen urteotan izango duen erronka nagusienetako bat. Euskadiko jaio-tza-tasa txikitu izana eta bizi-itxaropena handitu izana bezalako fenomenoak direla-eta, gure gizartea zahartze-prozesu bizkorrean murgilduta dago gaur egun. Immigrazioa egiturazko errealitate positibo gisa kontatu eta baloratu beharko da, erronka horri erantzuteko behar den esparrua eraikitzeko.

GIZARTEAREN ZAHARTZEA

Bizi itxaropena handitu izanak eta, horren ondorioz, pertsona nagusien eta oso nagusien kopuruak gora egin izanak, erronka demografiko baten aurrean kokatzen gaitu, eta horrek erantzun jasangarri eta iraunkorra eman behar die zainketei. Era berean birplanteatu behar ditu zahartze eredua bera, belaunaldi ezberdinen arteko harremanak eta pertsona nagusiek gizarteari egiten dioten ekarpena, besteak beste.

Zahartzarora iristen diren pertsonen profila aldatu egingo da. Zahartzarora iritsiko dira historiako

belaunaldi prestatuenak. Ez gerra zibila bizi izan zuena eta/edo frankismoaren aurka borrokatu zena, baizik eta haren seme-alabak. Demokrazian jaiotako gizon eta emakumeak, beren eskubideak ezagutzen dituztenak, ordaintzen dituzten zergen jakitun direnak; beren bizi-kalitateaz eta ongizateaz harro daudenak, eta, bide batez, bizimodu hori galdu nahi ez dutenak. Aldaketa nabarmena gertatuko da, batez ere, adineko emakumeen profilean; izan ere, bizi-ibilbide oso desberdina izango dute amek (ekonomikoki autonomoagoak diren eta beren eskubideak ezagutzen dituzten emakumeak dira). Adineko pertsona gehienak (nahiz eta artatu beharreko pobrezia-egoerak ere egongo diren) beren seme-alabak baino hobeto biziko dira, azken hauek bizi-proiektua garatzeko zailtasunak izango baitituzte. Adineko berriak hiriko seme-alabak izango dira, "urbanitak", eta landa eremua "hutsago" utziko dute. Duela hamarkada gutxi batzuk bost edo hamar urte hedatzen zen erretiroa, bi edo hiru hamarkada luzatuko da kasu askotan, erretiratu berriak baby-boomeko haurrak izango dira, Euskadiko historiako belaunaldirik trebatuena. Denbora gehiago emango dugu osasun-egoera hobean, eta denbora gehiago gaitasun kroniko gehiagorekin, bizitzeko aukera ematen digutenak, baina kostu ekonomiko eta pertsonal handia izan dezaketenak.

Aldaketak gertatuko dira adinekoen bizimoduan: bakarrik bizitzea ez da hain gauza "berritzailea" izango zahartzaroan, biztanle gehiago bikotekideirik gabe biziko dira aspalditik dibortzioengatik edo hausturengatik, bakardade handiagorekin, galera gehiagorekin eta babes gutxiagorekin, eta gizarte indibidualistago baterantz joko dugu, non komunitatea ahultzten den eta bakardadea erronka bat izango den.

Familiak eraldatuko dira: bi pertsona ahulek osatutako bikote gehiago egongo dira, biak elkarren zaintzaile bihurtuta, eta laguntza-premia berriak izango dituzte. Independizatu ezin diren seme-alabak dituzten eta mendekotasuna luza-roago izango duten etxe gehiago egongo dira, eta, beraz, "beheranzko" laguntza-fluxuen premia handiagoa emango da eta seme-alaba helduekin bizi izandako denbora partekatutako denboran eraldatzeko erronka emango da. Seme-alaba gutxiak dituzten familiak (eta bizi garen lekutik hain gertu ez daudenak) ahulagoak izango dira, laguntza behar izanez gero, hori lortzea zailagoa

izango baita. Sandwich belaunaldi mota berri bat ezagutuko dugu: zahartzaroaren hasieran gure gurasoak goitik zainduko ditugu; eta bi belaunaldi (seme-alabak, bilobak) behetik.

Faktore horiek guztiak zahartzaroari beste era batera begiratzea eragingo dute, ez bizitzaren amaieraren hasiera bezala, baizik eta bizitza berri baten hasiera bezala. Zahartzaroan sartzeko muga 65 urtetan ezartzeak ez du izango (eta ez du) inolako zentzurik. Zahartzaroaz ulertzen dugunaren muga berriak zehaztu behar ditugu, birdefinizio horrek hainbat arlotan izango dituen ondorioekin. Horietako bat lan-arlokoa da. Ez da ekonomikoki bideragarria hogeita hamar urte edo gehiago lan egin gabe bizitzea (erretiroa). Erretiroaz berriz pentsatu behar da, erretiroa hasteko adinaz, denborarekin zer egin behar den, pentsioez. Erretiroa berantiarra, malguagoa, partzialagoa eta itzulgarriagoa izango da. Horretarako, lan-mundu bat antolatu behar dugu, non adinekoek lekua izango duten, eta hori, dirudienez, zaila da.

Hainbat "zahartzaro" biziko ditugu, eta guztiak desberdinak, adinekoak garenean gehiago eskatuko dugu, gizartean ikusgarritasun handiagoa izango dugu baita politikan esku hartzeko aukera handiagoa ere.

Adinekoek bizi-proiektu berri bat behar eta eskatuko dute. Eredutik berri bat behar dugu. Ez da existitzen, asmatu egin behar da, eta bere gizartearekin konprometitutako eta hark aintzatetsitako adineko pertsonengandik igaroko da.

Belaunaldien arteko harremanak aldatu egingo dira. Euskadin (Espainian eta Europan bezala) gero eta biztanleria zahartuago baterantz goaz eta gero eta belaunaldi gehiago emango dira aldi berean. Ondorioz, gero eta eskasagoak izango dira belaunaldi ezberdinen arteko harremanak (belaunaldi bakoitzean pertsona gutxiago daude jaiotza-tasa txikiagatik) eta belaunaldi arteko harreman gehiago egongo direla aurreikusten da. Belaunaldien arteko harremana tenkatu egingo da, "igogailu soziala" gelditu egingo da eta horrek arrakalatu egingo du gure gizartean belaunaldi ezberdinen artean eman den ituna, gizarte kohe-sioa zailduz eta zatiketa gertatzeko aukeraz areagotuz. Belaunaldien arteko harreman horiek elkarri laguntzeko harreman bihurtzea izango da erronka.

Horrek guztiak ondorioak izango ditu osasunean, lanean eta zahartzarora zein adinarekin heltzen



garen eta zahartzaroan betetzen den rolaren perzeptzioan. Halaber, berehalako ondorioa izango du osasun-sistemetan eta gizarte-zerbitzuetan egin beharreko presioan, eta presio hori berregituratu egin beharko da. Bestela esanda, EAEk aurrekaririk ez duen erronka bati egin behar dio aurre, jarraibideen eskulibururik gabe datorrena, begirada luzea eta maila politiko altua eskatzen dituena, erronka horiek aukera bihurtzeko.

INMIGRAZIOA

Migrazio-dinamikak aztertzeko edo haien inguruan profetizatzeko joera nabarmena dago, krisi ekonomiko erreal edo potentzialekin parekatuta. Oso zail gertatzen da marko hori alde batera uztea, azientifikoa izateaz gain, ez baita oso baliagarria migrazioak biltzen dituzten prozesu ekonomiko-sozial guztiak ulertzeko. 2011-2013 aldian antzeman den geldialdiaz aparte, aurreko krisiak Euskadin izan zuen eragin geroratuaren ondorioz, 2014tik aurrera hazkunde ekonomiko minimoa ikusi bezain laster, inmigrazioa aurreko urtean baino askoz ere gehiago hazi zen 2019ra arte, 19. 500 pertsonako ekarpen positiboa utzi baitzuen. 2020an, koronabirusirik gabe, 25. 000 pertsona gehiago egongo ziren. Argi eta garbi diogu, gaur egun bizi dugun *impassearen* ondoren, "normaltasun berri, berri edo zaharrera" itzuli bezain laster, berriro sentituko dela fluxu hori, oso aitortua ez dena baina aldi berean ukalezina dena. Inmigrazioaren etorrera ikusezina da batzuetan, baina horren ondorioa agerikoa da beti. Euskadin, gaur egun, atzerritar jatorriko 260. 000 pertsona inguru daude.

Hemen jaiotako pertsonen eta nazionalizatutako kopuruak gora egin du, eskubide osoko herritarrak baitira eta, beraz, botoa emateko eskubidea baitute, eta horrek esan nahi du asentamendu-inmigratioa dagoela. Hau da, behin betiko bizilekua Euskadin finkatuko duten biztanleak. Inmigratioa Euskadin koiunturala izango dela pentsatzea errealitate kanpo geratzea da. Ondorioz, erantzukizunaren etikan oinarritutako ikuspegi publiko eta politiko batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan inmigratioa kudeatzeko eredu izan beharko litza-tekeenaren oinarriak egituratu behar dira, eta lan-, hezkuntza-, kultura- eta zuzenbide-politikak sustatu, ezinbesteko errealitate horri aurre egiteko.

Eredua aipatzea eta lantzea askoz errazagoa da aurretik zegoen eredu inplizitu batetik abiatzen denean. Eredu inplizitua existitzen da, XXI. mende

honen hasieratik bertatik eraikitzen joan baita. Irtenbide errealistena, beraz, Euskadin funtzionatzen duen eredu inplizitua aztertzea da, eta, hortik, haren dimentsio nuklearrak birbideratzea, etorkizunari eta gizarte kohesionatuari begira.

Euskadin bizi diren atzerritar jatorri edo etorkiko biztanleak EAEko biztanle guztien % 12 inguru dira, eta hurrengo urteetan hazten joango dira. Atzerriko jatorriko biztanleen migrazio-stocken (inmigratioak – emigratioak) gorabeherak euskal klase ertainaren indar ekonomikoaren arabera izango dira. Zenbat eta indar handiagoa izan, orduan eta biztanle gehiago iristen dira, eta alderantziz.

Kontuan izan behar da migrazioen trakzio-indarra aldatuz doala. Orain dela bospasei hamarkada Espainiako biztanleria Euskadira etorri zen industriaren eskakizunei erantzunez, eta gizonak eskatzen zituzten. Gaur egun, ordea, familiek eta haien zaintza-beharrek profil feminizatua eskatzen dute, esparru horretakoak baitira inmigratioa hartzen duten enpresak.

Zerbitzuen sektorea da, dibertsitate zabalean, Euskadira gaur egun egiten diren migrazioen eragilea, eta sektore hori ez da beteko tokiko biztanleekin. Enplegu-nitxoek teoriak *enplegu-merkatuaren segmentazio etnikoko prozesu* deitu dituenari erantzuten diote. Etorkinek kualifikazio txikiagoko lanpostuak betetzeak goragoko mailara eramaten ditu tokiko pertsonen lanpostuak. Etorkinetako batzuek gehiegizko kualifikazioa izateak betetzen duten lanpostuari dagokionez, ez du batere aldatzen eredu hori.

Kontuan harturik, beraz, erreklamatzeko eta hartzen duena dela inmigratio eredu inplizitua aukeratzen duena eta, eredu erakundeek baino, gizarteak berak aukeratua dela, eredu hau feminizatua da eta Latinoamerikatik dator, gehien bat. Iritsiko biztanleen % 30 emakume latinoamerikarrak dira. Gainera, paradoxa bitxi bat gertatzen da: lehenago garrantzitsuak izan direnak ordezkatzeko dituzten nazionalitate latinoamerikarrak feminizazio-tasa areagotzen ari dira. Latinoamerikako azken nazionalitateetan, Nikaraguan kasu, hamar etorkinetatik zortzi emakumeak dira.

Politika publikoen ikuspegitik, euskal gizarteak emakumeak eskatzen dituen heinean, neurriak hartu beharko lirake etorrera horretan beren ondorengoena ere errazteko. Aztertu beharko litza-teke zer aukera dauden familia berriro elkartzeko

politikak subsidiarioki legeztatzeko, bai eta lan-baimenei buruzkoak ere, Euskaditik finkatze-politikak indartu ahal izateko.

Bestalde, ikuspegi geopolitikotik aztertu beharreko gai bat Ipar Afrikakoa da. Marokoko biztanleak kopuru garrantzitsuetan iristen jarraituko dute, Maroko Espainiarekin eta Europarekin lotzen duten interes ugariak direla eta. Alderdi hori aipatu beharra dago; izan ere, bertako biztanleek magrebtarrak oso begiko ez dituzten arren, hori izango da Euskadik migrazio-arloan egin dezakeen kontroletik kanpo dagoen presentzietako bat.

Orain arte aztertu den errealitateak erakusten du, batez ere krisi-garaian, errealitate desberdin horrek desberdin izatearen gaitzespen- edo bazterketa-diskurtsoak eragin ditzakeela, gizarte-laguntzak, eskola-jantokiak edo edozein baliabide komunitario eskuratzeko aitzakiarekin. Gure gizartean, besteganako gorroto-diskurtsoek espazio bat izan dezakete, behar adina hazten uzten bazaie. Beharrezkoa da bazterte-agerraldi horiek gizartean ez sustraitzea.

Tolerantzia-indize txikiak duten pertsonak hiru profil dituzte: egoeraren arabera edo koiunturak eragindako pertsona xenofoboak (egitura sozialeko espazio berberetan atzerriko jatorriko pertsonekin lehiatzen direnak), pertsona arrazista kalteberak (objektiboki eta subjektiboki zaugarritasun pertsonal eta sozial handieneko egoeran daudenak) eta pertsona intolerante ideologikoak (atzeritarrak iriste onartzen ez dutenak).

Euskadin, tradizio ideologikoen konbergentziagatik, oinarri moral partekatuak daude immigrazio-eredu propio bat proposatzeko, egiturazko gertaera horri aurre egiteko eta erakunde arteko izaera duen immigrazio-politika koordinatu eta eraginkor bat egiteko. Errealitatea eta oraina hemen daude. Euskal gizartean bizi diren biztanleen etorkizuna berdintasunean eta aniztasunean kudeatzea da helburua. Krisialdietatik harago normaltasunak gora egingo du, eta une horretan migrazio-fluxuek atzera egingo dute. Bi aldiz gertatu da, eta berriro gertatuko da.

3. 5. DESBERDINKERIAREN KONTRAKO BORROKAREN ERRONKA, TXIROTASUNA ETA GIZARTERATZEA

Desberdinkeraren aurkako borroka, haren adiera guztietan, gure babes-sistemaren helburuetako

bat izan da beti. Azken urteotan, eremu horrek protagonismo handiagoa hartu du, bai prestazio ekonomikoen eta horien arau-garapenaren (DSBE eta GLL) bidez, bai programei emandako arretaren bidez. Hori guztia premisa argi baten pean gertatu da: pertsonaren duintasunak esku-bideen subjektu gisa duen balioa (balorazioa eta Diagnostiko soziala, zerbitzu-zorroa), baina baita bere bizi-proiektuaren arduradun gisa ere. Begirada aldaketa da gakoa, kolektiboegi begiratzetik (taldekatu eta estereotipatu egiten baitu) pertsonari begiratzera, bere garapen pertsonalaren protagonista bihurtuz.

Babes sozialeko sistema gaur egungoaren oso bestelako testuinguru sozial batean sortu zen. Une hartan, gizonezkoen enplegu beteak eta enplegu egonkorak nolabaiteko egonkortasun ekonomikoa ematen zieten etxe gehieni. Era berean, familia tradizionalen ahalmen integratzaileak adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza eta arreta eskaintzen zuen. Hala ere, duela urte batzuetatik hona, gizarte-zerbitzuek gizarte-arrisku berriei egin behar diete aurre (Taylor- Gooby, 2004): enpleguaren suntsipen handia eta lan-baldintzen prekarizaziorako joera, mendeko biztanleriaren bolumena handitzea eragin duen bizi-itxaropenaren hazkundera, eta familia-eraldaketak, zenbaitetan, etxe barruko bizikidetzan disfuntzioak dakartzatenak.

Hiru faktore horien konbinazioak planteatzen ditu Espainiako bazterkeria-prozesu gehienen ezaugarri nagusiak: pobrezia, enplegurik eza edo enplegu prekariora, prestazioen agorpena edo gabezia eta etxebizitza-gastu handiak. Hortik aurrera, etxean adingabeak izateak edo osasun fisiko edo mentaleko arazoak izateak eta denborak berak egoerak are zailago bihurtzea eragiten dute.

FOESSAren azken txostenean jasotzen diren datuen arabera, Euskadin, gure gizartean, pertsona asko (%85) gizarteratze-egoeran daude. Hala ere, daturik kezagarriena da gora egin duela eta kroniko bihurtu dela bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen ehunekoa, gaur egun % 8 ingurukoa baita. COVID-19aren krisiak sortutako egoerak are nabarmenago uzten du errealitate hori; izan ere, laguntza-, etxebizitza- eta enplegu egonkorreko sareen gabeziek bazterkeria larriko egoerak areagotu ditzakete.

Azken hamarkada hauetan aurrerapen garrantzitsuak eman dira eskubideen arloan. Euskadik



eta Nafarroak aurrera egin dute gizarte-bazterkeriaren aurka, eskubideen ikuspegitik. Oraindik ere oztopo batzuk daude haurrentzako edo adinekoentzako politikak garatzeko, bai eta baztertutako edo atzerriko pertsonentzako politikak garatzeko ere, baina urrats garrantzitsuak eman dira gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko bidean. Horren adibide da gutxieneko errentak jasotzen dituzten pertsonen ekonomia eta gizarteratzea bermatzeko eskubide bikoitza aitortu izana.

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan zen gutxieneko errenten politika ezartzeko orduan (Oinarrizko Errenta lehenik eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ondoren). Tresna horri esker, babes-sare zabal bat ehundu da kalteberatasun-egoeran dauden pertsonetik, gehienak emakumeak, soldata-arrakalaren ondorioz, enpleguaren prekarizazio handiagoaren ondorioz, eta horren guztiaren ondorioz, erretirorako kotizazioak txikiagoak izan baitira. Tresna hori balio handikoa izan da, datuek erakutsi duten bezala. Hala ere, egungo errealitateak behartuko gaitu pobrezia-aren aurka borrokatzeko tresnak birpentsatzera, orain arte ezagutu dugunaren guztiz bestelako egoera batean. Baditugu tresna batzuk beste krisi-testuinguru batzuetan eraginkorrak direla erakutsi dutenak. Baina egungo testuingurura egokitu behar dira. Gutxieneko errenten tresnak birpentsatu behar dira. Pobrezia-aren aurka borrokatzeko tresna izateari utzi behar diote, eta kalteberatasun-egoeren aurka borrokatzeko tresna bihurtu behar dira, pertsonen bizi-ibilbideetan sortzen diren behar berrietara egokituz. Gainera, beharrezkoa da diru-sarrerak bermatzeko politika koherente bat, sistema berean bilduko dituen gaur egun dauden prestazio ekonomikoen modalitateak. Gako horri esker, sistema osoari koherentzia eman ahal izango litzaioke, etorkizuneko osagarri gisa, gizarte-segurantzaren balizko plan-teamendu gisa.

DESBERDINKERIAREN KONTRAKO BORROKA

Oro har, adostasun zabala ematen da hezkuntza-sistemak eta osasun-sistemak desberdintasunak murrizteko duten eginkizunaren inguruan. Adingabe guztiei hezkuntza-aukerak bermatzea erantzukizun publikoa da. Arlo honetan dauden ebidentzia zientifikoek egiaztatzen dute aukera politikoa dela inbertsio sozialerako,

zalantzarik gabe, pertsonen sustapenean eta, beraz, gizarte-kohesioan laguntzen duelako.

Erantzukizun politikoko eremu hori esku-hartze publikoko funtsezko bost arlotan gauzatzen da. Alde batetik, hezkuntza-baliabideak garatzea, herritarrei bizitzan zehar prestatzeko aukerak eskaintzeko, baina, batez ere, bizitzako lehen urteetatik helduarora bitarteko trebakuntzan eta prestakuntzan. Bigarren gako da hezkuntza-sisteman pertsona guztiak sartzeko aukerak sortzea. Horren ondorioz, osasun- edo desgaitasun-arrazoiengatik zein ekonomia- eta/edo etnia-kontuengatik premia bereziak eta biziak dituzten pertsonentzako hezkuntza-estrategiak eskainiko dituzten mekanismoak ezartzen dira. Hirugarrenik, prestakuntza estu-estu lotuta dago lurralde baten ekonomia- eta lan-garapenarekin, eta, beraz, lurralde-garapenerako estrategia eztaba daezina da. Laugarrenik, hezkuntza-sistema familiei laguntzeko baliabide gisa ere finkatu da, bai seme-alaben sustapenari dagokionez, bai kontziliazio-baliabideei dagokionez. Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, gizarte-zerbitzuen sistemak oso zeregin garrantzitsuak du, bai adingabeen eskubideak babesteko eta bermatzeko orduan, bai eta adingabeen erreforma-sistemari lotutako gizarte- eta hezkuntza-lanean ere. Horregatik guztiagatik, hezkuntza-eremuak lankidetzan-espazio eta zeharkako ekintza-estrategia garrantzitsuak ditu beste sail batzuekin, hala nola osasunarekin, enpleguarekin, garapen ekonomikoarekin eta produkzio-sarearekin edo gizarte-zerbitzuekin.

ENPLEGUA

Enplegua izan da, urte askoan, gizarteratzearen paradigmaren elementu nagusia. Enpleguak pertsonari ematen dizkio estatus bat, gizartean leku bat, nork bere emantzipazioaren eta autonomiaren jabe izateko behar dituen diru-sarrerak, bai eta nortasuna ere. Azken urteotan, enplegarritasunaren paradigmak pertsonaren gizarteratzea bermatzeko baliatu diren estrategiak bultzatu ditu, prestakuntzaren eta ibilbide pertsonalizatuaren diseinuaren bidez. Beraz, enplegua lortzea da errealitate horretatik bertatik lortu nahi den helburua.

Hala ere, inoiz baino beharrezkoagoa da etorkizuneko lan-gizarteari buruzko gogoeta egitea, herritar guztiei eragiten baitie, eta enplegu ahularekin zaila baita gizarte indartsu bat sostengatzea; dagoeneko ez da egia enplegua baino integrazio hoberik ez dagoela,

lanpostua izan arren txirotasun egoeran dauden herritarrak daudela gogoan; beraz, enplegu-eskasiari gehitu behar zaio gero eta gaitasun sozial txikiagoa duela gizarteratzeko, esparru prekarizatzaile horrek, era desberdinez bada ere, barnean hartzen dituelako etorkinak eta bertan jaiotakoak.

Horrela, enplegua paradigma horretatik aurreposatzen zaion erreferenzialtasunaren zati bat galtzen ari da. Lanaldi partzialeko enpleguen hedapenak edo lan-baldintzen prekarizazioak eragin dute gero eta gehiago Guy Standingen kategoria sozialaz hitz egitea: "prekariatua" izenekoaz, hain zuzen. Enpleguak, beraz, ez du balio pertsonen gizarteratze-ibilbidea diseinatzeko bektore bakar gisa, ezta diru-sarrerak bermatzeko ere, ezta norbaiti herritartasun-estatusaren zati nagusia emateko ere, orain arte bezala. Beharrezkoa da gogoeta egitea enpleguak gure gizartean eta etorkizunean beteko duen eginkizunari buruz. Eta beharrezkoa da inklusio-ibilbideak babestea enpleagarritasunaren paradigma osatzen duten politikekin.

Lehen esan bezala, nolabaiteko adostasuna dago gizarte-bazterkeria alderdi anitzeko fenomeno gisa ulertzearen inguruan. Fenomeno horrek, pertsonen parte-hartze ekonomikorako gaitasuna kontuan hartzeaz gain, gizarteratzearen espazio soziala, harremanetakoa eta politikoa ere aintzat hartzen ditu. Ildo horretan, erakundeek, adituek eta komunikabideek ahalegin kolektiboa egin behar dute herritar guztiei laneratzearen egungo mugak helarazteko eta gizarteratzeko beste modu batzuei eta gizarteari balio handia ematen dioten beste jarduera batzuei balioa emateko, hala nola boluntarioei eta zainketei. Arreta-sistemak integratu eta koordinatu beharko dira, batez ere toki-eta eskualde-mailan, helburu bererantz begira egon daitezten. Hala, lehentasunezko sektoreetan garapen ekonomiko eta soziala eragotziko duten dinamikak lehen planora igaro behar dira, helburu horretan lagunduko duten garapen komuneko kooperatibak edo ekimenak sortuz.

ETXEBIZITZA POLITIKA

Euskal gizartean etxebizitzaren jabetza oso zabaldua dagoen tradizioa da. Etxebizitzen prezioa etengabe garestitu da eta 2008ko krisiak neurri batean moteldu zuen joera hori, baina herri eta hiri gehienetan berriz ere gora egin du, merkaturaren eskaintza nahiko urria zelako. Testuinguru horretan, abiapuntua da etxebizitza bat (edo

hura eskuratzeko laguntzak) eskura dezakeenak gizarte-egituraren abantaila handia duela. Beraz, etxebizitza-politikak desberdintasunaren aurkako borrokaren ardatz izan behar du, norabide bikoitzean. Batetik, gazteei emantzipazio-prozesuak erraztuz, alokairu sozialaren aldeko apustu argia eginez. Bestetik, bazterkeria egoeran dauden pertsonen etxebizitza bat eskuratzeko aukera izan dezaten. Hori da gizartean aktiboki sartzeko lehen urratsa. Eta, enplegu- eta diru-sarreraren berme-politikei eman beharreko osagarria. Politika horiek, batera hartuta, ezinbesteko elementu baitira aurrez deskribatutako gakoetan garapen pertsonala ahalbidetuko duten gizarteratze-prozesuak bermatzeko.

4. ITUNAK HERRI MAILAKO ETORKIZUN SOZIALERAKO

Nahi dugun eta espero dugun Euskal gizartea sortzeko bidean, agiri honetan deskribatu diren erronka nagusiei erantzun behar zaie. Hausnarketarako azken proposamen gisa bost Herri itun planteatzen dira, etorkizunera begira lehenetsi beharreko jardueren hazia ereitea bilatzen dutenak.

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ITUNA

Gizarte honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko itun bat behar du. Itun horretan, gure gizarteko eragile guztiak inplikatu behar dira aktiboki: erakunde publikoak, enpresak, sindikatuak, mota guztietako elkarteak, komunikabideak, ikastetxeak, familiak, herritarrak oro har. Beharrezkoa da eragile guztiek berdintasunaren kontzeptua barneratzea, justizia sozialari dagokionez ezinbesteko baldintza izateaz gain, aldi berean, garapenerako apustu estrategikoa dela, talentu guztia aprobetxatzea ahalbidetzen duena eta elementu bat dela gure berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako.

Berdintasunaren aldeko itunak, besteak beste, ondorengoak jaso behar ditu:

Berdintasunerako borondate politikoa eta gobernantza: erakunde publikoek berdintasun-politikak blindatzearen eta genero-ikuspegia osasunean, hezkuntzan, ekonomian, enpleguan, kulturean, gizarte-zerbitzuetan, segurtasunean, hirigintzan eta emakumeen eta gizonen bizitzetan



nolabaiteko eragina duten esparru guztietan txertatzearen alde egin behar dute. Horrek esan nahi du berdintasun-egiturak indartzearen alde egin behar dela, bai eta berdintasuna bultzatzeko aurrekontuak handitzearen alde ere (ez bakarrik berdintasun-erakundeetara bideratuak, baita sektore-eremu guztietan berdintasuna sortzen duten ekintzetara ere).

Emakumeen ahalduntzea bultzatzea: beharrezkoa da emakumeen ahalduntzea babestea eta bultzatzea; horrek esan nahi du emakumeen garapen indibidual eta kolektiboari laguntzea, genero-kontzientzia eta autonomia bultzatuz, eta, era berean, emakumeen partaidetza sozial eta politikoan laguntzea.

Ekonomiak eta gizartearen antolaketa eraldatzea: egungo eredu sozioekonomikoari buruzko eztabaida publikoa bultzatu behar da, eta hori egiteak zenbait gai ikusarazi behar ditu, hala nola emakumeek EAEn duten enpleguaren prekaritate handiagoa eta pobrezia feminizazioa, soldata-arrakala edo zainketa-lanak emakumeen inguruan naturalizatzea. Horrek, besteak beste, emakumeak zigortzen ditu lan-merkatuan eta erabaki-eremuetan. Beharrezkoa da antolamendu- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrotzea eta berdintasunean oinarritutako hezkuntzan eragitea, besteak beste, estereotipoek eta genero-uste faltsuek markatutako lan-bereizketa saihesteko. Beharrezkoa da enpresetan berdintasun-planak bultzatzea, bereizketa bertikalari eta kristalezko sabaiei aurre egiteko eta gizartearen talentu guztia aprobetxatzeko, besteak beste.

Zainketen antolaketa berri baten aldeko apustua: Zainketen gizarte-antolaketa berri bat bultzatu behar da, pertsonak eta bizitzaren jasagarritasuna zentroan jarriz, lanaren banaketa orekatuan oinarrituko dena; baita gizonen aldetik zaintzaren eta etxeko lanen ardura partekatzean eta enplegu-egiturak norberaren eta familiaren lan-bizitzako premietara egokitzean, eta gizarte- eta komunitate-zerbitzuak eurak moldatzean.

Indarkeria matxistik gabeko gizarte baten aldeko apustua: premiazkoa da berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herrialde-itun bat eta politika bat bultzatzea, betiere emakumeen aurkako indarkeria genero-desberdintasunaren adierazpen goren gisa kokatuz, eta berdintasunean aurrera egitea hura desagerrarazteko bide gisa.

Beharrezkoa da arreta eta segurtasuna hobetzeko apustua egitea (erakundeen arteko koordinazioa bultzatuz eta biktimak artatzen dituzten profesionalen prestakuntza sustatuz, besteak beste), eta ezinbestekoa da prebentzioaren alde egitea, batez ere belaunaldi gazteenetan eta ikasgeletako hezikidetzak funtsezko tresnatzat hartuta, baita gizonekin ere (berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra sentsibilizatutako eta konprometitutako gizonen kopurua handitzea) eta komunikabideen konpromisoa alde izanik, eragin sozializatzaile handia duelako gizonen eta emakumeen berdintasunezko ereduak aurkezteko eta komunikabideetan eta publizitatean emakumeen kosifikazio eta hipersexualizatzea saihesteko.

Berdintasunean oinarritutako prestakuntzaren eta hezkuntzaren aldeko apustua: ikasgeletan hezkidetzaren aldeko apustu sendoa egitea. Berdintasuna zeharka lantzea, baita derrigorrezko hezkuntzako irakasgai gisa ere. Berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea (derrigorrezko prestakuntza administrazioetako teknikari eta politikarientzat, genero-ikuspegia unibertsitate-ikasketetan). Familietan berdintasun-balioen transmisioa bultzatzea, tresnak eta jarraitu beharreko ereduak emanez eta haien sentsibilizazioa sustatuz.

Arestian aipatutako apustu guztiek gure gizartean balio-aldaketa sustatzen dute, ezinbesteko baldintza baita eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko eredu batera igarotzeko. Gizartean eta gizarte osatzen duten pertsonen subkontzientean hain errotuta dauden balioak aldatzea zaila bada ere, ezin dugu ahaztu etengabe aldatzen ari den gizarte batean bizi garela, eta belaunaldi berri bakoitzak berdintasunerako aukera berri bat dakarrela. Ez dugu ahaztu behar belaunaldi berriak gure begira daudela etengabe.

2. BELAUNALDIEN ARTEKO ITUNA

XXI. mendeko Euskadi zahartzen ari da eta biztanleria galtzen ari da. 65 urtetik gorako euskal herri-tarrak gehiago dira 19 urtetik beherakoak baino, eta behera egin dute: 3. 619 heriotza gehiago 2018ko lehen sei hilekoan jaiotakoak baino (Eustat). XX. mendean, urtean 6 hilabeteko bizi-itxaropena irabazi dugu, eta gure historian inoiz ezin izan gara aldi berean hainbeste belaunaldi elkarrekin bizi, bien arteko distantzia zabaltzen den bitartean. Halaber, gero eta zailago bihurtzen ari da haien interesak bateragarri egitea.

Belaunaldien arteko ituna – idatzi gabeko arau horren arabera, helduek gazteak zaintzen dituzte, nagusi direnean oraingo haurrek beraiek zainduko dituztela pentsatuz (elkarrekikotasun disoziatua denboran) – gure bizikidetzaren eta etorkizunaren funtsezko ardatza da, eta hainbat arrazoiengatik tentsionatzen da, hala nola demografikoengatik (biztanleria eraldatu egiten da: adineko gehiago eta desberdinak, jaiotza-tasa jaitea, zaintzaile potentziala gutxitzea, etab.), sozioekonomikoak (belaunaldi gazteek gurasoek baino soldata txikiagoak dituzte, adinekoek beren soldata baino pensio handiagoak dituzte, eta haiek ezarritako bideak baino baldintza hobekuntza eragin eta horrek alienazioa dakar); denboraren erabileran eman diren aldaketak (lan-bizitzak kolonizatu duen familia-bizitza, lanean denbora gehiago eta harremanetan gutxiago ematen duguna); ideologiaren eta balioen aldaketak (segurtasunik ezaren pertzepzio handiagoa, etorkizunarekiko mesfidantza, konpromiso eta inplikazio falta gazteen aldetik); eta zahartze-erduen aldaketak (zahartze aktiboa, pertsona nagusiek gizarteari egiten dioten eta gizartean duten zereginaren ideiareneko transformazioa ...)

Horrek guztiak gizarte honek bere gain hartu dituen “mekanismo” desberdinei eragiten die: pensioak, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, bizikidetzaren hezkuntza, ondare-transmisioa, etab. Beraz, belaunaldien arteko itun bat beharko dugu gizartean, ondorengo puntuak kontuan hartuko dituen:

ZAHARTZAROAREN PARADIGMA BERRIA

Beharrezkoa da zahartzaroaren (zer babestu nahi den eta zer babestuko ez den), erretiroaren (erretiro-adina, malgutasuna, lanarekin nola konbinatu) eta zahartzaroa eta haren kontingentziak babesteko zerbitzu publikoen mugak zehaztea. Zahartzaroa eta zahartzea ulertzeko paradigma berriak ezartzea, berdintasunezkoagoak, beste belaunaldi batzuekin erantzunkideagoak eta guztien onerako konprometituagoak, ez hain “hedonikoak” eta “eudaimonikoagoak”, malguagoak eta pertsonalizatuagoak, eta adinekoen zeregina haien rola

aitortu eta balioesten duen gizarte baten zerbitzura jarriz. Aldaketa horren aurrean, premiazkoa da pentsioei buruz orain arte zegoen eztabaida eta ekimen esparrua suspertzea. Erretiratuak eta zaintzaileen lana sustatzea. Erretiro libre malguago eta dinamikoago baten alde egitea, pentsioekin bateragarria den lan baten alde, etab.

HARREMAN BERRIAK

Beharrezkoa da belaunaldi ezberdinen artean harreman-eredu berriak sortzea (belaunaldien arteko ituna), baita generoen artean, familia mota ezberdinen eta bizikidetzaren moduen artean eta adin desberdinetako langileen artean ere, eta laguntza eta zaintzak lortzeko zailtasunak dituzten pertsona bakartekien. Zahartzeari eta belaunaldien arteko itun berri baten beharri lotutako erronkak txertatu behar dira agenda sozialean, politikoa eta instituzionalean, eztabaida publikoa, proposamenen kontrastea eta herritarren mobilizazioa sustatuz. Beharrezkoa da, adibidez, Euskadi osoko adinekoen zentroak eraldatzea belaunaldien arteko harremana sustatzeko eta guztion onerako baliabide gisa; edo sistema judiziala programa sozial kolektibo baten barruan kokatzea belaunaldien arteko itun berri baterako (bizitzaren eta heriotzaren arteko igarobidea, adinekoen eskubideak, ondare-eskualdaketen eta jaraunspenen aldaketak); edo belaunaldien arteko harremanetan inplikatzeko diren eta seme-alabak izan nahi dituzten gazteei zaintzak ematen dizkieten enpresei zerga onurak ematea, edo PFEZ berezia eta mesedegarriagoa aurreikustea beste belaunaldi batzuen bilakaeran behar bezala inplikaturako zaintzaile eta boluntarioentzat. Erronka baten aurrean gaude, baina baita aukera baten aurrean ere. Belaunaldien arteko itunak lankidetzaren publiko-privatu integrala eta koordinatua behar du.

BEGIRADA BERRI BAT ZAINKETEI

Zainketen errealitateari buruzko begirada eta fokua aldatu behar dira, zaintza horiek karga indibidual, familiar eta kolektibo gisa hartzeko ikuspegia gainditzeko eta gizarte-trakzioko faktore gisa identifikatzeko. Zaintzak herrialdearen aktibo bihurtu behar ditugu, bai gure BPG-rako, bai balioen gizartearen sustatzeko. Arazo konplexu baten aurrean jarduteko gai izango diren politikariak behar ditugu, konplexutasunetik abiatuta. Gizarte zaharkitu baten aurrean, immigrazioaren integrazio erreala, proaktiboa eta planifikatua sustatu behar



da, gizarte-kohesioaren alde egingo duena, besteak beste zainketen lan-sektorean laneratzea sustatuz. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu behar da, besteak beste, zaintza-lanetan erantzunkidetasuna lortzeko, batez ere emakumeen esku soilik jarrai ez dezaten. Beharrezkoa da belaunaldien arteko zaintza- eta harreman-kultura sustatzea: lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan belaunaldi-artekotasunari buruzko prestakuntza ematea, unibertsitatean prestakuntza-orduak eta boluntariora-orduak emateko eskola-kredituak eskaintzea, edozein motatako bekak eskuratzeko boluntariora egiteko derrigortasuna bultzatzea, unibertsitateko ikasketetan zainketak eta belaunaldien arteko ituna sartzeari, edo arlo horretako ikerketa sustatzea.

JAIOTZA-TASARI LAGUNDUKO DION EGOERA

Jaiotza-tasa arazo ez izatea lortu behar da, inork ez diezaiola familia izateari uko egin, bere bizitza profesionalarekin bateratzeko aukerarik ez duelako. Horretarako, lan-denborak arrazionalizatzeaz gain, soldata-esparru duin bat ere behar da, gure ongizate-eredua eta zainketen erantzunkidetasuna jasangarri egin nahi baditugu botere publikoen eta herritarren artean, bai eta emakume eta gizonen artean ere. Seme-alabak izan nahi dituzten gazteei zainketa lanak erraztuko dizkieten enpresen zerga-abantailak ematea proposatzen da, edo gazteei sarbidea erraztuko dieten etxebizitza-politikak bultzatzea, beren bizi-proiektua aurrera eramanez.

ALDAKETAK ENPRESAN ETA LAN MUNDUAN

Beharrezkoa da enpresa- eta lan-eredu bat, ordu-tegien malgutasun eta egokitasun handiagoa sustatuko duena – lana eta bizitza pertsonala hobeto uztartzea –, emakumeen garapen profesionalari historikoki kalte egin dion diskriminazioa desagerraraziz. Enpresen kontziliazio-planek eta belaunaldien arteko zainketek administrazioen ebaluazio-irizpideen parte izan behar dute kontratazioak egiterakoan. Abantailak ematea zainketen sektoreri atxikitako pertsonen Gizarte Segurantzako kuotetan.

ALDAKETAK ETXEBIZITZAN ETA INGURUETAN

